

KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

### **ZIURTATZEN DOT:**

2014ko uztailaren 7an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

## **8.- BERMEOKO UDALEKO ERRETRANSMISIOAK EGITEKO ETA TOKIKO TELEBISTA IZAN DAITEN EUSKARAZKO TELEBISTA ZERBITZU KONTRATUA ESLEITZEA.**

### **Planteatutako gaia**

Bermeoko Udaleko erretransmisioak egiteko eta tokiko telebista izan daiten, euskerazko telebista zerbitzuaren kontratua esleitzea.

### **Aurrekariak**

Lehenengoa: 2014ko otsailaren 24an Bermeoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak Bermeoko Udaleko erretransmisioak egiteko euskerazko telebista zerbitzua kontratatazioaren gastua onartu eban, 41.140,00€, 2014ko otsailaren 10eko Ogasun batzordeak aldeko diktamena emon eta gero.

Bigarrena: Administrazio espedientean justifikatzen dan legez, zerbitzu hau emoteko enpresa bakarra dago, Busturialdeko Irrati Telebista (OIZMENDI TB) hain zuzen be.

Hirugarrena: 2014ko martxoaren 17an Busturialdeko Irrati Telebistari (OIZMENDI TB) prozeduran parte hartzeko gonbitea egin eta gero horrek bere eskaintza aurkeztu eban 2014ko maiatzaren 6an, baina pleguetan eskatzen ziren zenbait dokumentu aurkeztu ez ebazala eta, hiru egun balioduneko epea emon jakon horreek aurkezteko

Laugarrena: Behin, falta ziran dokumentuak aurkeztuta, bere eskaintza aztertu da, 34.000 eurokoa BEZ kanpo, hain zuzen be, horri jagokon BEZa 7.140 eurokoa dalarik (41.140 € guztira).

### **Argudioak**

Bakarra: Dokumentazioa aztertuta, egiaztatu egin da Busturialdeko Irrati Telebistak (OIZMENDI TB) aurkeztutako eskaintzak kontratazio prozedura arautzen daben Baldintza Tekniko eta Administrazioetan finkatutako baldintzak betetzen dauzala.

### **Erabagia**

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dot:

BAKARRA: Bermeoko Udaleko erretransmisinoak egiteko eta tokiko telebista izan daiten, euskerazko telebista zerbitzuaren kontratua Busturialdeko Irrati Telebistari (OIZMENDI TB) esleitzea, aurretiaz, jagokon eran, 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 151.2 artikuluan xedatutako errekerimendua egin eta, hori jaso eta hurrengo 10 eguneko epean, Baldintza Administatiboen 20. puntuan zehaztutako agiriak aurkeztuko balitu.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2014ko uztailaren 10ean.

ONETSIA  
ALKATEA